Andoaingo Udala
Zk./ Nº 2026/1612
Data / Fecha 2026/06/09
Ebazpena / Resolución

# Alkatetzaren ebazpena

Katramila Antzerki eta Dantza taldeak 2026. urteko bere kultur jarduerak aurrera eramateko 2026ko apirilaren 17an aukezturiko dirulaguntza eskaera ikusirik.

Hezkuntza eta kultura Teknikariaren txostena ikusirik.

Ikusirik, udal Kontuhartzaileak egindako kontrako txostena.

Ikusirik, udal Idazkariak egindako kontrako txostena.

Horrenbestez, agiri honen bitartez, ondokoa

**ERABAKI DUT**

**1.-** Onartzea, Andoaingo Katramila Antzerki eta Dantza taldearen artean proposatutako lankidetza hitzarmenaren sinadura, zeinak honako ezaugarriak izango dituen.

**Xedea:** 2026rako antolatutako kultur jarduerak.
**Dirulaguntza: 4.092€**.
**Partida:** 1.0500.481.338.00.14.2026
**Indarraldia:** 2026-01-01tik 2026-12-31ra.

**2.-** Hezkuntza eta kulturako jarduneko zinegotzi ahaldunari hitzarmen hau sinatzeko ahalmena ematea.

**3.-** Katramila Antzerki eta Dantza taldeari bidaltzea hitzarmena, Hezkuntza eta kulturako jarduneko zinegotzi ahaldunak sinatuta.

**4..-** Onartutako dirukopuru honen %60a, hau da 2.455,20€ Katramila Antzerki eta Dantza taldeari ordaintzea onartzea. Elkarteari utzitako udal materialaren bat egoera txarrean edo apurtuta bueltatuko balute, dirulaguntzaren bigarren zatiarengatik jaso beharko luketen dirukopurutik deskontatuko da konponketa horren gastua. Iritsiko ez balitz, diferentziaren ordainketa egin beharko dute.

**5.-** Dirulaguntzaren bigarren zatia ordaindu ahal izateko, aipatu elkarteak 2027ko urtarrilaren 15a baino lehenago aurkeztu beharko du 2026ko jardueren memoria, likidazioa eta zurigarri guztiak.

**6.-** Kontuan izan behar dituzte sarrera eta gastuen balantzea ondo zerrendatuta eta kontzeptu bakoitzaren zenbatekoarekin aurkeztuko da, eta Katramila Antzerki eta Dantza taldeak sinatuta egon beharko du. Izandako sarrera guztien zerrenda ere aurkeztuko da, eta kontzeptu bakoitzaren zenbatekoa.

**7.-** Ebazpen hau Katramila Antzerki eta Dantza taldeari eta Udal Kontuhartzailetza lansailari helaraztea.

ESKU30e4c528-5c6f-4240-8742-941ed929bf34

Erabakia Udaleko idazkariaren aurrean sinatu eta bete dadin agindu dut.

Andoainen, sinadura datan.

***Idazkaria*** **ALKATEA**